

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko otsailaren 17an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

#### **4.- HITZARMEN BIDEZKO DIRU LAGUNTZAK: 2022RAKO EGITASMOAK ETA AURREKONTUAK KRONIKA**

Dobera Euskara elkarteak **Kronika egitasmoa bideratzeko** 2022rako egitasmoa eta aurrekontuak aurkeztu ditu.

Aurkeztutako aurrekontuan, Udalaren aldetik 65.000,- euroko diru laguntza jasotzea aurreikusi dute.

Euskara delegatuak ezagutzera eman du 2022ko udal aurrekontuetan 65.000 euro izendatuta daudela Dobera Euskara Elkartearen **Kronika** egitasmorako, eta diru kopuru hori bideratzea proposatu du.

Hitzarmenean jasota dagoenaren arabera honela egingo da ordainketa:

Ordainketa era:

2022ko martxoan	32.500 €
2022ko urrian	16.250 €
2023ko otsailan	Likidazioa

Kontuan hartu da **Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak** 2022ko otsailak 10eko bilkuran **AHO BATEZ** emandako irizpena

Horiek horrela hau erabaki da **AHO BATEZ**

---

Onartzea **Kronika** egitasmoa bideratzeko 2022ko udal aurrekontuetan jasota dagoen diru laguntza bideratzea: 65.000 €.

KONTUSAILA.- 02.481.02.335.00.2022. "Zuzeneko erregimenean emandako Euskara Zerbitzuko diru laguntzak".

---

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo

errekursoak aurkezteari ezertan galarazi gabe.

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa  
Bitarteko idazkaria

Hernani, 2022ko martxoaren 3an

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU**5**f25110-15f4-40b4-9d8a-9f9bac5e88e6**

*Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**